

@@@AGINDUA, 2011ko urriaren 17koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Elorrioko (Bizkaia) «María Mediadora» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.@@@

Elorrioko (Bizkaia) «María Mediadora» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularra den «Congregación Misioneras Parroquiales del Hogar» erakundearen legezko ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita ikastetxearen titulartasuna aldatzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, heziketarako eskubidea arautzen duena; 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa; 131/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duena; eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- «María Mediadora» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematen da: egun, «Congregación Misioneras Parroquiales del Hogar» erakundeak du titularitatea, baina, aurrerantzean, «Iglesia Católica-Diócesis de Bilbao» erakundeak izango du, eta ikastetxea eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko du. Ikastetxea Elorrioko udalerriko (Bizkaia) Urarka kalean dago, 2. zenbakian, eta 48004404 kode-zenbakia du.

2. artikulua.- Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, baina horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honek 2011-2012 ikasturtetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 17a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.